

BESAIDE

Teresa

Txikitari hasi nintzen musika ikasten nere hiriko udalaren musika eta dantza eskolan, gurasoek animatuta. (Etxean aintzinako musika entzuteko afizio handia ezagutu dut betidanik). Musika klasikoaren inguruan ibili nintzen urte luzez, talde ezberdinetan jotzen nere klarinetearekin Arte Ederretako lizentziatura bukatu nuen arte. Momentu hortan Santiago de Compostelara joan nintzen musika klasikoko ikasketetan gehiago sakontzeko asmoarekin. Han musika modernoa, inprobisazioa eta Galiziako herri musikan zebilen jendearekin egin nuen topo, eta honek nere norabide musikala guztiz aldatu zuten. Askoz ere gertukoagoa eta nereagoa sentitzen nuen musika jotzen hasi nintzen. Urte batzuk geroago, etxera itzuli nintzenean, alboka ikasten hasi nintzen eta herri musikaren inguruan jarraitzen dut gaur egun. Ibilbide anitza duten musikariek musika elkarbanatzeko zortea daukat proiektu ezberdinetan, betiere bidean ezagutu eta ikasitakoa gogoan edukiz eta etengabe gauza berriak ikasiz.

Gorka

Musikan txikitari hasi behar omen da. Ez zen nire kasua izan, 16 urterekin hasi bainintzen musikarekin serio samar. Agian lehenago ez hastea eskolan musika ikasgaia bertan behera utzi zuen nire gelako bakarra izatearen zama eramatearekin lotuta dago. Pixkanaka musikak harrapatu egin ninduen, eta eskolako txirula whistleengatik, gaitengatik eta nire eskuetan erori ziren mota guztietako txirulengatik aldatu nuen, arkitektura karrera musika irakaslearekin aldatzeraino. Horrela, euskal, galiziar eta asturiar musikari handien eskutik, gaur egun oraindik jarraitzen dudana formakuntza hasi nuen. Baina, haize eta perkusio soinu-tresnetan trebatzeaz gain, eskuraezina iruditzen zitzaidan ametsetako soinu-tresna bat zegoen, duela urte batzuk nire eskuetara iritsi zena, ia patuaren nahiagatik, nire bizitza erabat aldatuz: zarrabetea. Hortik aurrera, bidaia eder bat hasi zen, nazioarte mailan zanfonista handienengandik ikasiz, horri buruzko liburu bat argitaratzera iritsi arte.

Aritz

Gaztaroan gitarra eskuan, rock munduan ibili nintzen arren, txikitatik entzun izan dut herri musika aitaren eskutik, bai bertakoa, zein Galizia, Asturias edota Irlandarra, besteak beste.

Pixkanaka instrumentu ezberdinekiko interesa zela medio, India, Afganistan, Iran, Grezia edota Turkiar musikak entzuten hasi nintzen, baita beraietan murgildu ere Efrén López, Christos Barbas eta beste maisu batzuen eskutik.

Handik eta hemendik edanda, bideak berriro jaioterriko musikan gehiago sakontzera gonbidatu nau, bidelagun beste bi musikari apart jarritz.

Maitasunez gureak sentitzen ditugun doinu, erritmo eta koplak ikasi, aztertu eta gozatu nahi ditugu. Gure aurrekoek musikaren bitartez munduari buruz zuten ikuspegiak lorrindu nahi dugu, errotu, jolastu, errespetuz gure ikutua eman eta besteoi erakutsi, oraindik ere bizirik bait dirau.

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko.



BESAIDE

Teresa

De pequeña empecé a estudiar música en la escuela municipal de música y danza de mi ciudad, animada por mis padres. (Siempre he conocido mucha afición a escuchar música antigua en casa). Durante años anduve en torno a la música clásica, tocando en diferentes grupos con mi clarinete hasta que terminé la licenciatura de Bellas Artes. En ese momento fui a Santiago de Compostela con la intención de profundizar más en los estudios de música clásica. Allí me encontré con gente que se dedicaba a la música moderna, a la improvisación y a la música popular gallega, y esto cambió totalmente mi dirección musical. Empecé a tocar música que sentía mucho más cercana y mía. Años después, cuando volví a casa, empecé a estudiar alboka y hoy en día sigo girando en torno a la música popular. Tengo la suerte de compartir música con músicos con una trayectoria variada en diferentes proyectos, siempre teniendo presente lo que hemos aprendido en el camino y aprendiendo continuamente cosas nuevas.

Gorka

Dicen que en la música hay que empezar de pequeño. No fue mi caso, ya que comencé con la música un poco en serio con 16 años. Quizá no empezar antes está relacionado con llevar la carga de ser el único de mi clase que suspendió la asignatura de música en la escuela. Poco a poco la música me enganchó y cambié la flauta del colegio por los whistles, las gaitas y todo tipo de flautas que cayeron en mis manos, hasta el punto de cambiar la carrera de arquitectura por la de magisterio musical. Así, de la mano de grandes músicos vascos, gallegos y asturianos, comencé una formación que todavía hoy sigo. Pero, además de adiestrarme en instrumentos sonoros de viento y percusión, había un instrumento sonoro soñado que me parecía inaccesible y que llegó a mis manos hace unos años, casi por deseo del destino, cambiando por completo mi vida: el zarrabete. A partir de ahí, comenzó un precioso viaje, aprendiendo de los más zanfónistas a nivel internacional, hasta llegar a publicar un libro al respecto.

Aritz

Aunque en mi juventud, con guitarra en mano, pasé por el mundo del rock, desde pequeño he escuchado música popular de la mano de mi padre, tanto local como gallega, asturiana o irlandesa, entre otros. Poco a poco, por interés por los diferentes instrumentos, empecé a escuchar músicas de la India, Afganistán, Irán, Grecia o Turquía, y me sumergí en ellas de la mano de Efrén López, Christos Barbas y otros maestros.

Bebiendo de aquí y de allá, el camino me ha invitado de nuevo a embutirme más en la música de mi pueblo natal, poniendo como compañero de viaje a otros dos músicos geniales.

Queremos aprender, analizar y disfrutar de las melodías, ritmos y coplas que con amor sentimos nuestras. A través de la música pretendemos desentrañar la visión que nuestros predecesores tenían del mundo, arraigar, jugar, dar nuestro toque con respeto y mostrárselo a los demás, que sigue vivo.

El pueblo que canta nunca morirá.

